

EUSKARA IKASTEKO HASTAPEN IKASTAROAK ETORKINENTZAT ETA BERTOKOENTZAT

Kaixo *lagun*:

Getxotar askok ez daki euskaraz edo apur bat baino ez. Horietako askok seme-alabak izan dituzte eta hezkuntza sistemari esker ume horiek euskara ikasten ari dira. Beste batzuk, lanagatik, *lagun*engatik, inguruagatik, komunikabideen bidez edo jai eta ospakizunen bidez izan du euskararekin harremanetan jartzeko aukerarik. Beste batzuetan hurbilpen hori oraindik ez da gauzatu. Horregatik, **bitartekoak jarri nahi ditugu zure esku, hurbilpenetik haratago**, orain, zurea ere baden herri honetako berezko hizkuntza, **euskara, ikas dezazun.**



Horretarako, euskara ikasteko edo dakizun euskara hobetzeko bidaltzen dizugu Getxoko euskaltegiek eskaintzen dituzten ikastaroei buruzko informazioa: betiko ikastaroak baina baita autoikaskuntza ikastaroak, azken finean, **euskara-laguna izan zaitezten lagunduko dizuten ikastaroak.**

EUSKARA IKASTAROAK

Ikastaro presentzialak, oinarrizko maila:

- ❶ **Getxoko Udal Euskaltegia (Romo):** informazioa: 94 466 62 99 www.getxo.eus/eu/euskaltegi
- ❷ **Jose Antonio Agirre Euskaltegia (Algorta):** informazioa: 94 460 66 71 www.jagirre.net

Autoikaskuntza ikastaroak, oinarrizko mail aeta maila aurreratua: autoikaskuntza ordenadore bidez + *mintzapraktika* eta tutoretza saioak.

- ❸ **Lauaxeta AEK Euskaltegia (Algorta):** informazioa: 94 430 47 34 www.aek.eus/blogak/uribekosta/

Urritik ekainera. Matrikula irailan. Matrikulatzeko euskaltegietara joan behar duzu. **Prezioak:** galdetu euskaltegietan.

Euskara ikasteko diru-laguntzak:

- ⇒ Getxoko Udala: getxotarrantzat. Baldintza ekonomikoak eta asistentzia bete behar. www.getxo.eus/euskara
- ⇒ Bizkaiko Foru Aldundia: *Euskara Eskura Txartela*. Euskara ikasle bizkaitarrantzat. www.bizkaia.eus/euskaratxartela
- ⇒ HABE: HABEren mailaren bat edo baliokidea gainditu behar. www.habe.euskadi.eus